

Ezpalak

JON TORNER

Pilar Belzunzek Espainiako Kulturaren Montblanc saria jaso du, Chillida Leku museoaren eta fundazioaren bitartez Eduardo Chillidaren lana hedatzen laguntzeagatik. Eskultorearen emazteak luma estilografikoa eta 15.000 euro jaso zituen sari moduan. Sariaren zenbatekoa Legazpiko Lenbur fundazioari emango dio Belzunzek, Euskal Herriko Industriaren Ondarea eta Memoria berreskuratzeko egindako lanarengatik.

Pablo Sastrek *Gauzen presentzia* liburua kale-ratu du Elkar argitaletxearen Etabaida sailean. Sastrek egungo gizarteaz gogoeta egin du objektuen eta haien erabileraren bitartez.

Nicanor Zabaleta harpa-jotzaile donostiarra eta Domenico Scarlatti musikari italiarra izango ditu ardatz abuztuaren 6an hasiko den Donostiako Musika Hamabostaldiaren 68. edizioak. Errusiako musikak ere tarte berezia izango du egitarauan.

David Barberok *Garra*:

«Azkenaldian, antzerkia museo bat bihurtzen ari dela uste dut. Obra klasikoak hartu eta planteamendu estetiko iraultzaile batekin muntatzen dira, baina gaiak gaur egungo arazoekin izan dezakeen loturaren pentsatu gabe. Eta jendeak antzerkia urruneko zerbait balitz bezala ikusten du geroz eta gehiago, bere arazoak jorratzen ez dituen zerbaiten moduan».

Kinik eta Santi Oruek *Geu*

Gasteiz aldizkarian: «Antzerkian bezala gertatzen da komikigintzan, beti esaten da krisian dagoela baina bertan jarraitzen dugu. Helbururik nagusia ghetotik irtetea da. Horretarako, argitaletxeek arrisku gehiago hartu behar dute beren gain. Saialdiak egon badaude, desberdintasuna bilatzen dutenek arrakasta lortzeko, baina azken finean saialdiak baino ez dira».

Krea Proiektuak eta Krea Gaztea bekak emango dituzte

ARABAKO VITAL KUTXAK babestutako Krea (<http://www.krea-red.com>) egitasmoaren barruan Krea Proiektuak eta Krea Gaztea bekak emango dituzte. Proiektuen atalean bost beka emango dituzte egungo artearekin, musika-konposizioarekin, koreografia sorkuntzarekin edo antzerki sorkuntzarekin lotutako egitasmoak garatzeko. Horiez gain, gazteentzako -1977ko maiatzaren 1az geroztik jaiotakoentzako- hiru beka emango dituzte. Sortze-espezialitatearekin lotutako sorkuntza proiektuak garatzeko eta ikasketak sakontzeko bekak izango dira. Bekak eskatzeko epea ekainaren 30a arte egongo da zabalik.

Liburulibre ekimena abiatu dute Zumaian

ZUMAIAKO UDALEKO EUSKARA ZERBITZUAK Liburulibre izeneko ekimena jarri du martxan. Bookcrossing delakoaren antzeko ekimen horrek helduengan euskaraz irakurtzeko grina sustatzea du helburu. Horretarako, 30 liburu jarri dituzte herritarren eskura Zumaiaiko hainbat txokotan (kiroldegian, turismo bulegoan...), nahi dutenek hartu eta irakurri ditzaten. Liburu guztiak euskarazkoak dira; tartean itzulpenak daude. Liburulibre: www.zumaia.net/liburulibre. Bookcrossing: www.bookcrossing.com.

*uda 2007

GAZTE ETA HELDUENTZAKO BARNETEGIAK

16 urtetik aurrera B eta D eredukoak

Bakaikun Nafarroa

Sakana bailaran, Aralar eta Urbasa artean

Arrigorri Ondarroa

Itsas pentsioa, hondartza gainean

***Bilbon** Gaur etxean

Uztaila, Abuztua eta Iraila

Gabriel Aresti euskaltegia*
San Bizente 2 - 4. - BILBO - Tel: 94 423 75 91 - www.gabrielaresti.com

Elkarlan
euskaltegia

Maleta berriak, ezinezko maletak

Riomundo nobela: Jon Maia. (Txalaparta)
Sabor a mi kanta: Alvaro Carrillo (Mexiko)

Halabeharrak, zoriak eta aiurriak ekarri ninduten kazetari-tzara, baita, handi-handika, politika eta literatura jorrazera ere. *Riomundo* nobela eskuetara heldu orduko ezaguna nuen nobelaren istorioaren historia. Protagonista –*Jesukristo* esaten zioten hura, *Tente* guretzat– ezagutu nuen. Abertzaleek, komunista izateagatik, mespretxuz begiratzten zioten hura. Abila zen alabaina. Ormaiztegiko Zubipen, kantaldi mitiko –sarrerak ehun pezeta balio zuen– bateko pasadizoaz akordatzten naiz: kanpoaldea autoz gainezka, aparkatzeko lekurik ez. *Tente* –eta koadrilakoak– ailegatu orduko *munipek* isun mordoa jarria zuten. *Tentek* isun haietako bat hartu eta bere autoan paratu zuten. *Listo!* esan zuten. Bizkorra zen, bizkorra zenez.

Riomundoren egilearen aita ere ezagutu nuen. Leopoldo izenez gogoratzten dut. Baliteke memoriak huts egitea. Nik baino hobeto ene anaia Nikok ezagutu zuen. Leopoldo ez zen pertsona arrunta, diferentea zela esango nuke. Berarekiko azken akorduak amak ekarri zizkidan *Riomundoren* egilea nor zen aipatu nionean: “Horren aita 1977ko Askatasunaren Ibilaldian [mitikoa] ederki portatu zen aitarekin eta biokin, Arazurin. Polizia zaldiz oldartu zen jendearen kontra eta borda batera lagundu zigun”.

Literatura eta politika: ene patuaren adierazle. Hauteskundeen garaia itzuli da gurera beste behin ere. 2005eko



Alvaro Carrillo

Eusko Legebiltzarrerako kanpaina heldu zait gogora: Edorta Jimenez idazleak Jon Maia Aralar alderdiaren mitin batean bertsotan aritu zela idatzi zuen *Berriako* kronikan. Jon Abril idatzi beharrean Jon Maia idatzi zuen, nonbait. Hurrengo egunean, *Riomundoren* egilearen zuzenketa zekarren *Berriak*:


“Ni Aralarre perretxi-koetara baino ez naiz joaten”. Buruz ari naiz. Hori dut akorduan baina, baita gogoa goibeldu zitzaidala ere. Nire jitearen seinale, gure patuaren desaire.

Heldu dira berriz ere hauteskundeak: gure udal eta foru aldundietako eserlekuen ordezkarien emaile, geure sukarraren iragarle, geure historia berriaren ezintasun adierazle, geure istorio berrien eragile.

Riomundoko mundua dut gomutan, historia beti errepi-kan. Orduko mesprezuak, mespretxu dira gaur egun. Maleta berriak heldu dira berriro gurera, eta ezinezko maletak –Juanjo Olasagarren nobela gogoan– dira gure pusken eramaile oraindik ere.

Alvaro Carrilloren *Sabor a mi kanta* entzuten ari naiz, Amaia Zubiriaren ahotsean –Chavela Vargasek abesten zuen hura–. Aralarren imajinatzen dut Amaia, kantari: “*No pretendo ser tu dueño. No soy nada yo no tengo vanidad. De mi vida doy lo bueno. Soy tan pobre, que otra cosa puedo dar. Pasarán más de mil años muchos más...*”. Eta gure istorioarako istorio berrien letra berriak jalgi zaizkit: “*Pasarán más de mil años y veras, que la vida es un engaño, de veras. La impaciencia nos delata, la inocencia nos relata, día a día una vez más...*”.

Riomundoko mundua, Leopoldo edota Alvaro, istorio gazi-gozen eragileak.



MIKEL ASURMENDI



Zure mendiko erosketak ondo lotu

Euskal Herriko denda-katerik handiena kulturazko aislan. **Adituak** gara, baita **bidaiak** eta **mendi** gaietan ere. Bisita itzazu gure saltoki espezializatuak Bilboko elkar ZAZPIKALE eta Donostian elkar FERMIN CALBETON, 30. **Mapa, gida, kartografia, liburu teknikoak...** aukerarik zabalena.

ekar